

Autokontrola

Liburua ireki dut eta ohean etzan naiz, baina ez dut irakurri. Oso aspergarria da gaurko eguna. Ekaitz gogorrak herria utzi du, baina kaleak oraindik ere bustita daude. Ekaitza asko urrundu den arren, hodei beltz batek estaltzen du zerua. Gurasoek bakarrik utzi naute kostaldeko etxean, eta haiek hirira joan dira. Etxe honetako gela onena, nirea da argi eta garbi; leiho handi bat dago eta handik itsasoa begiratzen dut beti. Gaur, itsasoa ez dago batere bare. Olatuak haitzen aurka talka ari dira etengabe. Liburua itxi dut, guztiz nazkatuta, eta mugikorraren bila hasi naiz. Kajoi bat ireki dut, baina ez dut bilatzen egon naizena aurkitu, beste gauza bat baizik.

Basoan zehar oinez ibili naiz. Animaliak ikusi ditut, eta agurtu baita. Hartz handi bat hurbildu zait, atzetik kumetxo bat zuela. Marroi kolorekoak dira biak eta sudurreko punta, beltz-beltza dute. Jolasean aritu gara, 4 neska-mutil agertu diren arte. Haiek ere gugana hurbildu dira, eta irribarre egin digute. Jolasean jarraitu dugu guztiok batera. Oso jatorrak dirudite, arazo bakarra da, inork ez duela hitzik egiten, hartz handiak izan ezik.

-Nongoa zara, neska?-galdetu dit.

-Bilbokoa. Baina gurasoek etxe bat dute hemen ere, eta han igaroko ditugu aste santuko oporrak-erantzun diot lotsarik gabe. Ez zait batere arraroa egin animalia batek hitz egiteko ahalmena izatea.

Argi zuri batek esnatu nau. Begiak poliki zabaldu ditut, kostata. Logela baten nagoela konturatu naizenerako, erizain bat sartu da bertan.

-Egunon-esan dit irribarretsu.-Zelan egin duzu lo?

Ez dut jakin zer erantzun. Isilune bat egon da eta erizaina lasai asko gelatik irten da inongo kezkarik gabe. Ingurura begiratu dut eta aita ikusi dut aulki batean eserita. Lo dagoela uste dut.

-Aita?

Sustoan esnatu da. Zer arraio? Aita beti da loti-eder hutsa; zergatik esnatu da hain kezkatuta?

-June!

-Zer gertatu da? Non gaude?

-Basurtoko ospitalean gaude, maitea. Berrero ere drogak hartu dituzu. Ohean aurkitu zintugun, ia hilda, anbulantzia deitu izan ez bagenu...

Negar egiten hasi da. Niri ere malkoak erori zaizkit masailetatik behera.

Berrero ere istorio berbera...